Halaber, jasotzaileak HAEErekin biltzeko beharra izango du, hala eskatzen bazaio.

Arau horiek ez betetzeak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antola-arauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan ohartemandako ondorioak ekarriko ditu bere baitan, dagokion espedientea izapidetu ondoren

*Hamahirugarrena.–* Laguntzari uko eginez gero, idatziz jakinarazi behar da. Idazki hori aurkeztu eta berehala galduko dira ekonomi eskubide guztiak eta, zehazkiago, uko egiten den garaiari dagozkionak; halaber, uko egitearen data arte egindako ikerketaren edukia aurkeztu beharko da.

*Hamalaugarrena.–* Diru-laguntzari ukoa gertatzen bada, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak erabakiko du, uko egitearen data kontutan hartuta, ordezkoari emango zaion diru-laguntza.

*Hamabosgarrena.–* Deialdia indarrean jartzen den egunetik sei hilabete igarota, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ez badago esleipena egiteko erabakirik argitaratuta, interasatuek ezezkotzat hartu beharko dute beren eskaera. Hori dena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 44.1 artikuluaren arabera.

Asímismo, el adjudicatario tendrá la obligación de reunirse con el Instituto Vasco de Administración Pública, cuando así se le requiera.

El incumplimiento de estas normas dará lugar a las consecuencias previstas en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

*Decimotercera.–* La renuncia a la ayuda deberá notificarse por escrito y supondrá la pérdida de todos los derechos económicos correspondientes proporcionalmente al periodo de la ayuda que restaba por disfrutar; así como la obligación de presentar el contenido de la investigación realizada hasta la fecha de la renuncia.

*Decimocuarta.–* En caso de renuncia a la ayuda, el Director del Instituto Vasco de Administración Pública, apreciando las circunstancias temporales, resolverá si procede la adjudicación de la ayuda a los suplentes.

*Decimoquinta.–* Si transcurridos seis meses desde la entrada en vigor de la Resolución de convocatoria no se hubiera publicado en el Boletín Oficial del País Vasco Resolución alguna de adjudicación de las mismas, los interesados podrán entender desestimada su solicitud de conformidad con lo establecido en el art. 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-4269

AGINDUA, 2002ko ekainaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleei sail honetaz kanpoko prestakuntza-ekitaldietan parte hartzen laguntzearren, hainbat motatako banako diru-laguntzetarako deialdia egiten da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, GARATU programaren urteko planen bitartez, etengabeko prestakuntza-ekitaldiak sustatzen ditu, jardunean dauden irakasleak espezializatu, prestatu eta eguneratzeari begira lehentasunezkotzat jotzen baititu.

Sail honek sustaturiko edo diruz lagundutako eskaintza osatzeko, egokitzat jotzen da banakako diru-laguntzetarako deialdi hau egitea, jardunean dauden irakasleei prestakuntza-ekitaldietan parte hartzen lagun-

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-4269

ORDEN de 26 de junio de 2002, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan diversos tipos de ayudas económicas individuales para fomento de la participación del profesorado de la Comunidad Autónoma del País Vasco en actividades de formación ajenas a la oferta institucional del Departamento.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación promueve, a través de los planes anuales del programa GARATU, la realización de actividades de formación permanente que considera prioritarias para la especialización, cualificación y actualización del profesorado en ejercicio.

Como complemento a la oferta institucional promovida o subvencionada por el Departamento, se considera de interés efectuar una convocatoria de ayudas económicas de carácter individual que favorezca la participa-

tzearren. Sailaren sustapenik edo diru-laguntzarik ez badute ere, horrelako ekitaldien bidez irakasleak hobeto prestatzen dira eta horrek hezkuntza-sistema eta ikasleei eskainitako irakaskuntzaren kalitatea hobetzea ahalbidetzen du.

Arlo horren inguruan dabiltzan erakundeek eskainitako ekitaldiak, irakasleak etengabe prestatzekoak, ugariak direnez eta irakasleen interesak ere desberdinak direnez, bidezkotzat jotzen da irakasleen kidegoak dirulaguntzez nola baliatu zehazteko sistemaren bat arautzea, jarduera-motaren arabera. Sistema horri jarraiki ezarriko dira eman daitezkeen gehienezko diru-kopuruak; hori dela bide, laguntzak hobeto banatu eta jasotzaileen arteko txandakatze egokiagoa lortu nahi da.

Horregatik guztiagatik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legeko testu bategineko VI. tituluko xedapen gehigarrietan zehaztutakoarekin bat (testu hori azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilearen bidez onartu zuten, eta titulu hori, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko dirulaguntzak arautzeko da), eta urtarrilaren 23ko 1/2002 Legean zehaztutakoarekin bat (lege horren bidez, Eusko Legebiltzarrak, besteak beste, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko gastu-egoera onartu zuen. Euskal Autonomia Erkidegoko 2002.eko urtealdirako Aurrekontu Orokorretako Legearen egitasmoko 04. atalean dago jasota gastu-egoera hori), eta Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak proposaturik,

DEIALDIAREN XEDEA
ETA LAGUNTZA-MOTAK

*1. artikulua.–* Banakako diru-laguntzetarako deialdia egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleentzat, 2001eko urriaren 1a eta 2002ko irailaren 30a bitartean amaitu diren edo amaitzen diren prestakuntza-ekitaldietan parte har dezaten. Horretarako, 370.000 euro emango dira.

*2. artikulua.–* Prestakuntza-ekitaldia zein den eta non garatzen den kontuan hartuta, dirulaguntzak honela sailkatzen dira:

A) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publiko zein pribatuetan, dagokion titulazio akademikoa lortzeko aukera edo dagozkion gaiak irakasteko gaikuntza ematen duen edozein ikasketa- mota egiteko laguntzak.

B) Euskal Autonomia Erkidegoan, aurreko A motaren barnean sartzen ez diren prestakuntza-ekitaldiak egiteko laguntzak (ikastaro laburrak, kongresuak, etab...).

ción del profesorado en ejercicio en actividades de formación que, pese a no ser subvencionadas ni promovidas por el Departamento, redundan de hecho en una mayor capacitación profesional del personal docente y, en suma, en una mejora del sistema educativo y de la calidad de la enseñanza ofrecida a los alumnos y alumnas.

Debido a la pluralidad de las actividades de formación permanente del profesorado ofrecidas por las diferentes instituciones que actúan en este campo, y de los intereses de los distintos profesionales de la enseñanza, procede regular un sistema de ayudas que delimite el acceso de los diferentes colectivos docentes a las ayudas, en función del tipo de actividad de que se trate, y que limite las cuantías máximas que se podrán conceder, para facilitar así una distribución más equitativa y una rotación entre beneficiarios y beneficiarias.

Por ello, de conformidad con lo establecido en las disposiciones contenidas en el Título VI del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, referente a la regulación de las subvenciones en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en la Ley 1/2002, de 23 de enero, por la que se aprobó por el Pleno del Parlamento Vasco, entre otros extremos, el referente al estado de gastos del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, recogido en la Sección 04 del proyecto de Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2002, y a propuesta del Director de Innovación Educativa,

OBJETO DE LA CONVOCATORIA
Y TIPOS DE AYUDAS

*Artículo 1.–* Convocar ayudas económicas de carácter individual dirigidas al profesorado de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para facilitar su participación en actividades de formación que hayan finalizado o finalicen entre el 1 de octubre de 2001 y el 30 de septiembre de 2002, destinando a tal fin la cantidad de 370.000 euros.

*Artículo 2.–* En función de la actividad y/o la localidad en que se realice la misma, las ayudas podrán ser de los siguientes tipos:

A) Ayudas para realizar cualquier tipo de estudios en centros universitarios públicos o privados de la Comunidad Autónoma del País Vasco que conduzcan a la obtención de la titulación académica o especialización que posibilite la habilitación para la impartición de las áreas o enseñanzas correspondientes.

B) Ayudas para realizar actividades de formación en la Comunidad Autónoma del País Vasco no incluidas en el tipo A anterior (cursos cortos, congresos, etc.).

C) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, baina Espainian, prestakuntza-ekitaldiak egiteko laguntzak.

D) Espainiatik kanpo, Europako Batasuneko kide diren estatuetan, prestakuntza-ekitaldiak egiteko laguntzak.

*3. artikulua.*– Aurreko artikuluan adierazitako laguntza-moten arabera jaso daitezkeen gehieneko dirukopuruak hauexek izango dira:

| | |
|---|---|
| A motako laguntza | 600 euro |
| B motako laguntza | 400 euro |
| C motako laguntza | 900 euro |
| D motako laguntza | 1.500 euro |

*4. artikulua.*– Laguntzak bateraezinak dira beren artean, eta, beraz, ezin daiteke laguntza bat baino gehiago jaso deialdiko eta pertsonako. Bateraezinak dira, gainera, beste bideren batetik jaso litekeen beste edozein laguntzarekin, hots, europar programetakoekin eta bestelakoekin.

BETEBEHARRAK

*5. artikulua.*– Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko ikastetxe publiko zein pribatu itunduetan —edozein maila eta motetakotan, prestakuntza-zikloetan izan ezik— lantokia duten irakasleek eska ditzakete laguntza horiek, baita ikerketa eta irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuetan beren funtzioak betetzen dituzten irakasleek ere (Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoa, Pedagogi Aholkutegiak, Curriculuma Eratzeko Institutuak, Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiak, Itsuen Baliabidetegiak, IRALEko zentroak eta Euskal Girotze Barnetegiak), baldin eta hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

a) Ekitaldia gauzatu bitartean, eskatzaileak lehen aipaturiko edozein ikastetxetan jardun behar du irakasle.

b) Eskatzaileak antzeko beste prestakuntza-ekitaldirik eskurago ez izatea.

c) Eskatzaileak parte hartzeko moduko eta Hezkuntza Administrazioak berak antolatutako beste antzeko prestakuntza-ekitaldirik ez izatea edo, antolatu bada, eskabidea aurkeztu baina onartua ez izatea.

d) Eskatzaileak egiten duen lanarekin edo espezialitate-arloarekin zuzeneko lotura duen prestakuntza-ekitaldia izatea edo, LOGSE gero eta ezarriago dagoelako, lanposturako beharrezko eguneratzea izatea. Prestakuntza-zikloekin zuzenean loturiko jarduerak ez, inoiz ez.

Ondorio horietarako, egonkortasun-akordioetan sartuta dauden bitarteko irakasleek eta, ikastetxeko plan-

C) Ayudas para realizar actividades de formación fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco y dentro del estado español.

D) Ayudas para la realización de actividades de formación fuera del estado español y en el ámbito de los estados miembros de la Unión Europea.

*Artículo 3.*– Las cuantías máximas a percibir en cada caso, según los distintos tipos de ayudas indicados en el artículo anterior, son las siguientes:

| | |
|---|---|
| Ayuda tipo A | 600 euros |
| Ayuda tipo B | 400 euros |
| Ayuda tipo C | 900 euros |
| Ayuda tipo D | 1.500 euros |

*Artículo 4.*– Las ayudas son incompatibles entre sí, no pudiendo recibirse más de una ayuda por convocatoria y persona. Son igualmente incompatibles con cualquier ayuda que pudiera recibirse por cualquier otro cauce: programas europeos u otros.

REQUISITOS

*Artículo 5.*– Podrán solicitar estas ayudas los profesores y profesoras con destino en Centros docentes de enseñanzas de régimen general no universitario de la Comunidad Autónoma del País Vasco de carácter público o privado concertado, de cualquiera de los niveles y modalidades, excepto Ciclos Formativos, así como el personal docente que ejerce sus funciones en los servicios de investigación y apoyo a la docencia (Inspección de Educación, Centros de Apoyo a la Formación e Innovación Educativa, Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa, Centros de Educación e Investigación Didáctico-Ambiental, Centros de Recursos para Invidentes, Centros de Irale y centros de afianzamiento idiomático), siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

a) Que la persona solicitante sea docente en activo en cualquiera de dichos centros, durante el periodo de realización de la actividad.

b) Que no exista una actividad formativa similar más cercana a la cual pueda tener acceso.

c) Que no exista ninguna actividad formativa similar organizada por la propia administración educativa a la que pueda haber tenido acceso, o, de existir, que haya solicitado participar en la misma y que no haya sido admitido-a.

d) Que se trate de una actividad formativa directamente relacionada con el área de actuación o especialidad en la que trabaje la persona solicitante o bien que, por los efectos de la progresiva implantación de la LOGSE, responda a una recualificación necesaria para su situación profesional exceptuando, en todo caso, aquellas actividades formativas directamente relacionadas con Ciclos Formativos.

A estos efectos, los interinos incluidos en los acuerdos de estabilidad y los funcionarios de carrera que, por

tila berrantolatu beharra dela eta, ordezkapenak egin behar izan dituzten karrerako funtzionarioek azken bi ikasturteetan jardun-eremutzat izan dituztenak alegatu ahal izango dituzte, betiere egoera hori egiaztatzen badute.

e) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolaturiko, dei egindako edo diruz lagundutako ekitaldia ez izatea.

f) Prestakuntza-ekitaldia 2001eko urriaren 1a eta 2002ko irailaren 30a bitartean —biak barne— amaitzea.

g) Ekitaldia lanorduetan egin beharrekoa bada, horretarako baimena izatea.

h) Ekitaldi-programaren helburuak Sailak curriculum-arlo bakoitzeko ezarri dituen helburuekin bat etortzea.

i) D motako ekitaldietan, egiten den prestakuntza-ekitaldia ikastaroa bada, atzerriko hizkuntza ematen duten irakasleentzat bakarrik izango da. Baldintza hauek bete beharko dira diru-laguntza jasotzeko:

Gutxienez bi asteko iraupena izatea.

Metodologia edo metodologia eta hizkuntza lantzea (ez hizkuntza bakarrik).

Gutxienez astean 20 eskola-orduko iraupena izatea.

DEIALDITIK KANPO GELDITZEA ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK

*6. artikulua.*– 1.– Deialditik kanpo gelditzuko dira ekitaldia gauzatu bitartean ikasketa-baimena duten irakasleak.

2.– Aipatutakoez gain, ondorengoek ere ezin izango dituzte A motako diru-laguntzak eskuratu: eskatutako espezialitateari dagokion egokitzapena duten maisu-maistrek, herri-ikastetxeetan irakasten badute, eta lanbide-prestakuntza bera daukatenek, ikastetxe pribatuetatik badatoz.

3.– Era berean, deialditik kanpo geratuko dira prestakuntza-jardueren eskabideak, Prestakuntza Proiektuen deialdiko baldintzak betetzen badituzte eta ikastetxe bereko hainbat irakaslek aurkezten badituzte.

4.– D motako jardueretarako, azken bi ikasturteetan (99/00 eta 00/01) atzerrian antzeko laguntzarik jaso duten irakasleak kanpoan geratuko dira.

*7. artikulua.*– 1.–Laguntzagai den kopurua kalkulatzerakoan, matrikula, izen-ematea, joan-etorriak, mantenua eta ostatua hartuko dira kontuan, hurrengo irizpide hauen arabera:

a) Matrikula edo izen-ematea oso-osorik kontabilizatuko da, baina matrikularen kopuru horretatik, gain-

reorganización de las plantillas de los centros, se hayan visto obligados a realizar sustituciones, podrán alegar como área de actuación cualquiera de las que lo hayan sido en los dos últimos cursos, siempre que acrediten tal situación.

e) Que no se trate de una actividad organizada, convocada o subvencionada por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

f) Que la actividad formativa termine dentro del periodo comprendido entre el 1 de octubre de 2001 y el 30 de septiembre de 2002, ambos inclusive.

g) Que, en caso de que la actividad afecte al horario laboral, se disponga de la oportuna autorización.

h) Que los objetivos del programa de la actividad deberán estar de acuerdo con los objetivos planteados por el Departamento para las distintas áreas curriculares.

i) En las actividades de tipo D, cuando la actividad formativa a realizar lo sea en la modalidad de cursos, serán destinadas exclusivamente el profesorado impartidor de lengua extranjera, y sólo serán objeto de subvención aquellas actividades que cumplan los siguientes requisitos:

Que sean de una duración mínima de dos semanas.

Que aborden aspectos de metodología o de lengua y metodología (no sólo de lengua).

Que comprendan un mínimo de 20 horas semanales de clase.

EXCLUSIONES E IMPORTE DE LAS SUBVENCIONES

*Artículo 6.*– 1.– Quedan excluidos-as de la convocatoria el profesorado con licencia por estudios durante el periodo de realización de la actividad.

2.– Además de los anteriormente citados, quedan excluidos-as del acceso a las ayudas de tipo A, el profesorado que cuente con la habilitación correspondiente a la especialidad solicitada siempre que presten sus servicios en centros públicos y el que posea idéntica cualificación profesional en el caso de que procedan de centros privados.

3.– Quedarán excluidas las solicitudes por actividades de formación que cumplan las condiciones de la convocatoria de Proyectos de Formación y sean presentadas por varios profesores/as de un mismo Centro.

4.– Para las actividades de tipo D serán excluidos el profesorado que haya recibido alguna ayuda similar en el extranjero en los dos últimos cursos escolares (99/00 y 00/01).

*Artículo 7.*– 1.– El coste subvencionable para las ayudas se calculará en base a la matrícula o inscripción, desplazamiento, manutención y alojamiento, de acuerdo con los siguientes criterios:

a) La matrícula o inscripción se contabilizará en su totalidad, pero se deducirá la parte proporcional de la

ditzen ez diren irakasgaiei dagokien matrikulako zatia kenduko da.

Tituluak edo prestakuntza-ekitaldietako materiala emateagatik ordaindu beharrekoak ez dira inolaz ere laguntzagai izango.

b) Joan-etorriei dagokienez, lantokiaren eta prestakuntza-ekitaldia egiten den tokiaren arteko garraio-kostua joko da laguntzagai. Gastua garraio publikoko txartelean oinarrituz edo km bakoitzeko 0,10 euro ordainduko dela kontuan izanik kalkulatuko da, eta bi horietatik txikiena dena ordainduko da. Ekitaldia gauzatzen den herri berean bizi direnei ez zaie garraioagatik lagunduko. A motako ekitaldietarako, laguntzagai izango den gehieneko bidaia-kopurua ekitaldiaren ordu-kopurua lautan zatitzearen emaitza izango da.

c) Mantenurako laguntza gisa, bazkari eta afari bakoitzagatik 9 euro (ekitaldiak Europako Batasuneko beste estatu batzuetan egiten badira: 12,02 euro) emango dira, lanaldi etenean burutzen diren ekitaldietarako.

d) Ostatuari dagokionez, benetan sortzen den gastua joko da laguntzagai, baina gau bakoitzeko gehienez 36 euro emango dira (48 Europako Batasuneko beste estatu batzuetara joaten bada). Ostatu-gastuek, laguntzagai izateko, ezinbestekoak izan behar dute, hau da, eskatzailearen bizitokitik edo lantokitik ekitaldia egiten den lekuraino dagoen tarteak eskatuta egindakoak. Eguneroko garraio- edo ostatu- gastuen artean, txikiena ordainduko da, eta ostatuagatik diru-laguntzan ordainduko diren egunak prestakuntza amaitu bitartekoak eta bat gehiago izango dira gehienez ere.

*8. artikulua.–* 1.– Jasoko den diru-laguntza, gehienez ere, laguntzagai den guztiaren 100% izango da, 1. eta 3. artikuluan ezarritako mugak errespetatuz.

2.– Gehienezko zenbatekoak errespetatuko dira eta, aurrekontu-baliabideak aintzat harturik, 5. artikuluak ezartzen dituzten baldintzak bete eta 6. artikuluak egiten dituen bazterketek eragindako ez diren eskabide guztien artean, proportzionalki banatuko dira laguntzak.

ESKABIDEAK

*9. artikulua.–* II. eranskinean ematen den ereduaren arabera bete behar da eskabidea eta hurrengo agiri hauekin batera aurkeztuko da:

a) Ekitaldirako deialdia, gutxienez honako xehetasun hauek bertan jasota: erakunde antolatzailea, ekitaldiaren izenburua, hasiera eta amaiera-egunak, tokia, matrikula-saria eta egitaraua zehatz-mehatz azalduta. Balio akademikoko ikastaroetan ez da dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

matrícula correspondiente a las asignaturas no aprobadas.

En ningún caso serán subvencionables los gastos derivados de la expedición de títulos ni otros materiales necesarios para la realización de la actividad de formación.

b) En concepto de desplazamiento se considerará subvencionable el gasto de transporte entre la localidad del centro de trabajo y aquélla en la que se realice la actividad formativa. El gasto se calculará en base al billete de transporte público o a razón de 0,10 euros/km., financiándose el menor de dichos costes. No serán subvencionables los gastos de desplazamiento de las personas que residan en el municipio donde se realiza dicha actividad. Para las actividades de tipo A, el máximo de viajes subvencionable será el cociente entero de dividir el número de horas de la actividad entre cuatro.

c) De la manutención se considerarán subvencionables 9 euros por cada comida y cena (12 euros en actividades realizadas en otros estados miembros de la Unión Europea) en actividades que se desarrollen en jornada partida.

d) Del alojamiento se considerará subvencionable el gasto realmente originado, hasta un máximo de 36 euros/noche (48 euros/noche para actividades realizadas en otros estados miembros de la Unión Europea). Sólo se subvencionarán gastos de alojamiento cuando dichos gastos resulten indispensables a causa de la distancia entre el municipio de residencia o trabajo del-de la solicitante y el lugar de realización de la actividad, abonándose la cantidad que resulte menor entre los gastos de desplazamiento y alojamiento diario. El número máximo de días financiables por alojamiento y manutención no podrá superar en uno al de la duración de la actividad de formación.

*Artículo 8.–* 1.– La ayuda a percibir podrá ser el total subvencionable, respetando los límites establecidos en los artículos 1 y 3.

2.– Respetando los importes máximos y en función de las disposiciones presupuestarias, las ayudas se distribuirán proporcionalmente entre todas las solicitudes que cumplan los requisitos establecidos en los artículos 5 y no queden excluidos en el artículo 6.

PROCEDIMIENTO DE SOLICITUD

*Artículo 9.–* La solicitud se realizará según el anexo I e irá acompañada de los siguientes documentos:

a) Convocatoria de la actividad, en la que como mínimo consten: Entidad organizadora, título de la actividad, fechas de inicio y final, lugar, coste de la matrícula y programa detallado. En cursos de validez académica no deberá presentarse esta documentación.

b) Ekitaldian (jardunaldietan, batzarretan, ikastaroetan...) parte hartu izanaren egiaztagiriaren fotokopia. Ikasturte osoko unibertsitate-ikasketak, diplomaturak eta hizkuntza-eskola ofizialetako ikastaroak kalifikazio-egiaztagiri akademikoen bidez egiaztatuko dira.

c) Matrikularen gordekina, ordainketaren jatorrizko frogagiria edo horren kopia konpultsatuarekin batera.

d) Bidaien frogagiriak, garraio publikorik erabili badu.

e) Ostatu-gastuen jatorrizko fakturak, erabili badira.

f) Norberaren iritzi-txosten laburra (folio bat edo bi), ekitaldia nola gauzatu den azalduz.

g) Ikastetxeko idazkariaren egiaztagiria, zuzendariaren oniritzia izan behar duena, III. eranskinaren arabera egina, edo aurtengo ikasturtearen irakastaularen kopia, idazkariak alderatua; eta, behar izanez gero, egin beharreko prestakuntza-ekitaldi hori 5.d artikuluan zehazten denarekin bat datorrela egiaztatzen duen agiria. Laguntza-zentroetako irakasleek zuzendariaren egiaztagiria aurkeztuko dute, Hezkuntza Berriztatzeko lurraldeburuaren oniritziarekin batera.

Euren funtzioak Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoan betetzen dituzten irakasleek, dagokien barrutiko koordinatzailearen egiaztagiria, Ikuskaritzako lurraldeburuaren oniritzia izan behar duena, aurkeztuko dute; bertan, egin beharreko prestakuntza-ekitaldi hori 5.d artikuluan zehazten denarekin bat datorrela egiaztatuko da.

h) Deialdi honetara aurkezten den ekitaldi hori bera egiteko beste inongo laguntzarik jaso ez dela dioen zinpeko adierazpena.

i) Ekitaldia lanorduetan egiten bada, parte hartzen uzten duen baimen idatzia aurkeztu behar da.

*10. artikulua.–* Eskabidea beterik, gorago aipaturiko dokumentazioarekin batera, 2001eko urriaren 8a bitartean (egun hori barne) aurkeztuko da eskatzailearen lantokiko Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38.4 artikuluan adierazitako bulegoetan.

Aurkeztutako eskabideetan akats edo zehazgabetasunik ikusten bada, 10 egun izango dira hori zuzentzeko. Epe hori igaro eta zuzentzen ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 71.1 artikuluan zehazten den moduan ebazpena eman ondoren.

b) Fotocopia del certificado de asistencia a la actividad (jornadas, congresos, cursillos,...). La finalización de los estudios universitarios de curso completo, las diplomaturas y los cursos de Escuelas Oficiales de Idiomas se justificarán mediante la correspondiente certificación académica de notas.

c) Resguardo de matrícula con el justificante original de pago o copia compulsada del mismo.

d) Justificante de viajes en el caso de utilizar transporte público.

e) Factura original de los gastos de alojamiento, si se han realizado.

f) Breve memoria crítica personal (uno o dos folios) sobre el desarrollo de la actividad.

g) Certificado del-de la secretario-a del centro con el visto bueno del-de la directora-a, según anexo II, o copia del cuadro pedagógico del curso actual debidamente cotejada por el-la secretario-a, y, en su caso, acreditación de que la acción formativa a realizar responde a lo especificado en el art. 5.º d. El personal docente de los Centros de apoyo presentarán la Certificación correspondiente del Director/a con el visto bueno del-de la Jefe-a Territorial de Renovación Pedagógica.

En el caso de los docentes que ejercen sus funciones en la Inspección de Educación, certificado del Jefe-a de Zona correspondiente, con el visto bueno del-de la Jefe-a Territorial de Inspección, en el que se acredite que la acción formativa a realizar responde a lo especificado en el art. 5 d.

h) Declaración jurada de no haber recibido ayudas para la misma actividad que se acoge a la presente convocatoria.

i) Cuando la actividad afecte al horario laboral, se presentará el documento escrito por el que se autoriza la participación en la misma

*Artículo 10.–* La solicitud cumplimentada, junto con la documentación arriba citada, deberá entregarse , hasta el 5 de octubre de 2002 inclusive, en las Jefaturas Territoriales de Renovación Pedagógica del Territorio en el que se ubique el centro de trabajo del-de la solicitante, o en cualquiera de las dependencias indicadas en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Si se advirtiera en las solicitud presentada la existencia de algún defecto o inexactitud, se requerirá al interesado para que en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desestimada su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 71.1 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

EBAZTEKO PROZEDURA ETA DIRU-LAGUNTZA EMATEA

*11. artikulua.–* 1.– Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak emango du deialdiaren behin-behineko ebazpena. Horretarako, batzorde batek aztertuko ditu eskabideak edo ebazpen-proposamena egingo dio zuzendari horri. Honako hauek izango dira batzorde horretako kideak: Irakaslegoaren Hobekuntzako Administrazio Ataleko burua, batzordeburu lanetan, Pedagogi Berrikuntzarako lurraldeburuak edo beren ordez doazenak, Irakaslegoaren Hobekuntzako Administrazio-Ataleko beste bi funtzionario eta irakasleen ordezkariak, baina, betiere, unibertsitatekoa ez den irakaslego publikoarentzako hitzarmenaren baldintzak betez.

2.– Behin-behineko ebazpenak Hezkuntzako lurralde- ordezkaritzetan jakinaraziko dira urriaren 31 baino lehenago, eta guztietan honako xehetasunak jasoko dira:

a) Eskuratuko den zenbatekoa, laguntza ematea bidezkoa bada.

b) Uko egiteko izan den arrazoia, laguntza ematea bidezkoa ez bada.

c) Falta diren agiriak, hori izan bada ebazpenik ez hartzeko arrazoia.

3.– Ebazpen horien aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza sailburuordeari 10 egun baliodunek o epean, ebazpena jakinarazten denetik zenbatu beharrekoak.

*12. artikulua.–* 1.– Behin-behineko ebazpena argitaratu eta handik hilabetera hartuko du behin betiko ebazpena Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak. Ebazpen hori EHAAn argitaratuko da, eta honako hauek adieraziko dira:

a) Eskuratuko den zenbatekoa, bidezkoa izango balitz.

b) Osterantzean, uko egiteko izan den arrazoia.

2.– Ebazpen horiek ez dute administrazio-bidea agortzen, eta horien aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

3.– 2001eko azaroaren 30a baino lehen ebazpenik emango ez balitz, aurkeztutako eskabideak ezetsi egin direla ulertu ahal izango da.

*13. artikulua.–* Behin betiko ebazpena eman ondoren egingo da diru-laguntzen ordainketa, dena batera.

*14. artikulua.–* Jasotzaileak diru-laguntza eman zen helbururako erabiltzen ez badu, diru-laguntza emateko zergatia izan zen ekitaldia burutzen ez badu, finkaturiko xedeetan erabili duela justifikatzen ez badu, edo, modu batera edo bestera, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratuaren 50. artikuluan, agindu honetan edo laguntza emateko ebazpenean ezarritako

PROCEDIMIENTO DE RESOLUCIÓN Y ABONO DE LA SUBVENCIÓN

*Artículo 11.–* 1.– La resolución provisional de la convocatoria será dictada por el Director de Innovación Educativa, previo estudio de las solicitudes por una comisión que elevará propuesta de resolución a la misma. Esta comisión estará presidida por el Jefe de la Unidad Administrativa de Perfeccionamiento del Profesorado, y de la que formarán parte los/as Jefes/as Territoriales de Renovación Pedagógica o quienes los representen, otros dos funcionarios/as de la Unidad Administrativa de Perfeccionamiento del Profesorado y representantes del profesorado en los términos del acuerdo para el personal docente público no universitario.

2.– Las resoluciones provisionales serán hechas públicas en las Delegaciones Territoriales de Educación, antes del 31 de octubre, indicándose en cada una de ellas:

a) Cantidad a percibir en caso de proceder ayuda.

b) Causa de denegación en caso de no ser procedente.

c) Documentación a completar en caso de no poder resolverse por este motivo.

3.– Contra dichas resoluciones los-as interesados-as podrán presentar reclamación ante el Director de Innovación Educativa, en el plazo de 10 días hábiles desde su exposición.

*Artículo 12.–* 1.– La resolución definitiva será resuelta por el Director de Innovación Educativa en el plazo de un mes a partir de la publicación de la resolución provisional, publicándose la misma en el BOPV, indicando:

a) Cantidad a percibir en caso de proceder ayuda.

b) Causa de denegación en caso contrario.

2.– Contra estas resoluciones, que no agotan la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejero de Educación en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

3.– En el supuesto de que no se dictara resolución alguna antes del 30 de noviembre, las solicitudes presentadas se podrán entenderse desestimadas.

*Artículo 13.–* El abono de las ayudas se realizará, en un solo pago, tras la resolución definitiva.

*Artículo 14.–* En el supuesto de que el-la beneficiario-a no utilice la subvención para el destino específico para el que se solicitó y concedió; no realice la actuación que dio origen a la subvención; no justifique su aplicación a los fines determinados para los que se interesó o, en general, incumpla las obligaciones establecidas en el artículo 50 del texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del

eginbeharrak betetzen ez baditu, jasotako diru kopurua itzuli egin beharko du, baita sortutako lege-interesak ere. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzutan eman diren diru-laguntzen berme eta itzulketak arautu eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakundeen baldintzak, araubidea eta eginbeharrak ezartzen dituen Dekretuak ezarritako jardunbideari jarraituko zaio, bidezkoak izan daitezkeen gainerako ekintzen kaltetan joan gabe. Aipaturiko diru-kopuruak diru-sarrera publikotzat joko dira lege-ondorio guztietarako.

XEDAPEN GEHIGARRIA

*Lehenengoa.–* 1. artikuluan ezarritako guztirako zenbatekoa aldatu egin daiteke ebazpenak hartu baino lehen, eskatutako laguntza-kopuruaren arabera eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko beste laguntza-programa batzuk burutzetik geratzen den dirua kontuan hartuta. Kasu bakoitzean Hezkuntza sailburuordeak eman beharko duen ebazpena EHAAn argitaratuko da.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Agindu honen aurka, administraziobidea agortu egiten baitu, aukerako berraztertzeko errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke. Lehenengoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari jarri beharko zaio, hilabeteko epean; eta, bigarrena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiari jarri beharko zaio, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

*Bigarrena.–* Jardunbide arazoak direla eta agindu honetan ezarri ez den edozertan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea hartuko da aintzat.

*Hirugarrena.–* Agindu hau garatzeko eta erabiltzeko behar diren jarraibide guztiak emateko baimena ematen zaio Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari.

*Laugarrena.–* Agindu hau argitaratu, eta biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko ekainaren 26a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

País Vasco, en esta Orden, o en la resolución de concesión, vendrá obligado a reintegrar la cuantía concedida y percibida, además de los intereses legales que resultasen de la aplicación, siguiendo el procedimiento establecido al efecto en el Decreto, por el que se regula el régimen legal de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las entidades colaboradoras que participen en su gestión, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Las citadas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos legales.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

*Primera.–* El importe global consignado en el artículo 1 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayuda del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, y con carácter previo a la resolución de las mismas dando publicación en el BOPV la correspondiente resolución de la Viceconsejero de Educación.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación en el plazo de un mes, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Segunda.–* En todo lo no previsto en materia de procedimiento, por la presente Orden, será de aplicación la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Tercera.–* Se autoriza al Director de Innovación Educativa a dictar instrucciones precisas para el desarrollo y aplicación de la presente Orden.

*Cuarta.–* La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de junio de 2002.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

# I. ERANSKINA

## ESKABIDE-EREDUA. BANAKAKO LAGUNTZAREN ESKABIDEA. 2002. URTEA.

NORBERAREN DATUAK

Abizenak:...............................................................................................................................................................

Izena: ................................................................................................. NAN.: ........................................................................

Helbidea: .......................................................................................... Telefonoa: ...................................................................

Herria: ........................................................... Posta kodea: ................................... Herrialdea: ............................................

| BANKUKO KONTUAREN KODEAK | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Erakundea | | | | Bulegoa | | | | K.D. | | Kontu zk.a | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

ZEIN JARDUERA BURUTZEKO ESKATZEN DEN LAGUNTZA

☐ A – Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateko ikasturteak egiteko

☐ B – Euskal Autonomia Erkidegoan prestakuntza-ekitaldiak egiteko.

☐ C – Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, baina Espainian, prestakuntza-ekitaldiak egiteko.

☐ D – Espainiatik kanpo, Europako Batasuneko kide diren estatuetan prestakuntza-ekitaldiak egiteko.

PRESTAKUNTZA-EKITALDIAREN DATUAK

Izenburua: ...........................................................................................................................................................

Hasiera-eguna ....../...../...... Amaiera-eguna: ......../...../........ Orduak, guztira: ..................... Egunak, guztira: .................

Erakunde antolatzailea: .........................................................................................................................................

Tokia: ...................................................................................................................................................................

ADMINISTRAZIO-EGOERA EDO LAN-EGOERA

☐ 1 – Karrerako edo praktikako funtzionarioa

☐ 2 – Sare publikoko lan-kontratatu mugagabea

☐ 3 – Egonkortasuna duen bitartekoa

☐ 4 – Egonkortasunik gabeko bitartekoa

☐ 5 – Sare pribatuko lan-kontratatu mugagabea

☐ 6 – Sare pribatuko aldi baterako lan-kontratatua

☐ 7 – Bestelakoak (zehaztu)..........
..........................................

LAGUNTZAGAI DEN KOSTUA

Matrikula eta hilekoak: ....................................................................................... euro

Joan-etorria: ....................... km. x ...................... egun x 0,10 euro ..................... euro

Bazkari-afariak: ............................. x 9 Euro (12 Euro atzerrian) euro

Ostatua: ................................ gau x 36 Euro (48 Euro atzerrian) euro

LAGUNTZAGAI DENA, GUZTIRA................................................................ euro

HONEKIN BATERA DOAN DOKUMENTAZIOA

☐ Ekitaldirako deialdia edo ikas-egiaztagiria

☐ Ekitaldian parte hartu izana egiaztatzeko agiria

☐ Matrikularen gordekina, ordainketaren egiaztagiriarekin batera

☐ Bidaien frogagiria (garraio publiko kolektiboan)

☐ Ostatu-gastuen jatorrizko faktura

☐ Ikastetxearen egiaztagiria, II. eranskinaren ereduari jarraiki.

☐ Norberaren iritzi-txosten laburra

☐ Baimena, lan-orduetan egiten bada ekitaldia

Idazki hau izenpetzen duen honek gorago esandako datuak egiazkoak direla adierazten du, eta deialdi honetara aurkezten duen ekitaldia burutzeko ez duela beste inongo laguntzarik jaso.

........................, 2002ko................ren...a.
Eskatzailearen sinadura

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARI JAUNA

# II. ERANSKINA

## IKASTETXEKO IDAZKARIAREN EGIAZTAGIRIA

IKASTETXEAREN DATUAK

Izena: ........................................................................................ Kodea: ....................................................................

Helbidea: .................................................................................. Telefonoa: ...............................................................

Herria: ...................................................... Posta-kodea: ............................... Herrialdea: .......................................

Ikastetxe-mota ............................................. Publikoa .................................. Pribatua ...........................................

Nik, ..........................................................., ikastetxe horretako idazkaria naizenez, honako hau

EGIAZTATZEN DUT:

1).......................................................jauna/andrea, ................................................. NAN zenbakia duena, esandako ikastetxean jardunean dagoela irakasle, eta bere administrazio-egoera edo lan-egoera honako hau dela:

☐ 1 - Karrerako edo praktikako funtzionarioa ...................................................................

☐ 2 - Sare publikoko lan-kontratatu mugagabea ...................................................................

☐ 3 - Egonkortasuna duen bitartekoa ...................................................................

☐ 4 - Egonkortasunik gabeko bitartekoa

☐ 5 - Bestelakoak (zehaztu)

2) 2001/02 ikasturtean hurrengo irakasgaiak ematen dituela, orduka eta mailaka sailkaturik:

| IRAKASGAIAK | MAILAK | ORDU-KOPURUA ASTEAN |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

..........................., 2002ko ................ren...a.

Ikastetxeko zuzendariaren oniritzia

Ikastetxeko idazkariaren sinadura eta ikastetxeko zigilua

*ANEXO I*

*MODELO DE INSTANCIA/SOLICITUD DE AYUDA ECONÓMICA INDIVIDUAL. AÑO 2002*

*DATOS PERSONALES*

*Apellidos:* ..........................................................................................................................................................

*Nombre:* ........................................................................................ *D.N.I.* ...............................................................................

*Domicilio (dirección):* ..................................................................... *Teléfono:* ............................................................................

*Localidad:* ........................................................... *C. Postal:* ............................................. *Territorio:* ..................................

| *CÓDIGOS CUENTA BANCARIA* | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Entidad* | | | | *Oficina* | | | | *D.C.* | | *N.º de cuenta* | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

*TIPO DE ACTIVIDAD PARA LA QUE SE SOLICITA AYUDA*

☐ *A - Cursos universitarios en la Comunidad*
☐ *B - Actividades de formación en la Comunidad Autónoma del País Vasco*
☐ *C - Actividades de formación fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco y dentro del Estado Español*
☐ *D - Actividades de formación fuera del Estado Español y en el ámbito de los estados de la Unión Europea*

*DATOS DE LA ACTIVIDAD FORMATIVA*

*Denominación:* ..........................................................................................................................................................

*Fechas: Inicio ...../...../..... Final: ...../...../..... Total horas: ................ Total días:* ..........................................................................

*Entidad organizadora:* ...................................................................................................................................................

*Lugar:* ..........................................................................................................................................................................

*SITUACIÓN ADMINISTRATIVA O LABORAL*

☐ *1 - Funcionario/a de carrera o en prácticas*
☐ *2 - Contratado/a laboral indefinido/a de red pública*
☐ *3 - Interino/a con estabilidad*
☐ *4 - Interino/a sin estabilidad*
☐ *5 - Contratado/a laboral indefinido/a de la red privada*
☐ *6 - Contratado/a laboral temporal de la red privada*
☐ *7 - Otras (especificar)..........*
*.............................*

*COSTO SUBVENCIONABLE*

*Matrícula más mensualidades:* .............................................................................................. *euros*
*Desplazamiento : ...... km. x ...... días x 0,10 euros* ............................................................... *euros*
*Comidas y / o cenas: ...... x 9 Euros (12 Euros en el extranjero)*................................................. *euros*
*Alojamiento: ...... noches x 36 Euros (48 Euros en el extranjero)*................................................ *euros*
*TOTAL SUBVENCIONABLES* ........................................................................................ *euros*

*DOCUMENTACIÓN QUE SE ACOMPAÑA*

☐ *Convocatoria de la actividad o certificación académica*
☐ *Certificado de asistencia a la actividad*
☐ *Resguardo de la matrícula con justificante de pago*
☐ *Justificante de viajes (en transporte público colectivo)*
☐ *Factura original de los gastos de alojamiento*
☐ *Certificado del Centro según anexo II*
☐ *Breve memoria crítica personal*
☐ *Autorización, si la actividad afecta al horario laboral*

*El / la abajo firmante declara la veracidad de los datos expresados y no haber recibido ayudas para la misma actividad que se acoge a la presente convocatoria.*

*En ........................ a .... de .............. de 2002*

*Firma del/de la solicitante*

*SR. DIRECTOR DE INNOVACIÓN EDUCATIVA*

*ANEXO II*

*CERTIFICADO DEL/DE LA SECRETARIO/A DEL CENTRO*

*DATOS DEL CENTRO*

*Nombre: ........................................................................ Código: ..............................................................................................*
*Dirección: .............................................................................. Teléfono:.....................................................................................*
*Localidad: ................................................ C. Postal: ....... Territorio: .........................................................................................*
*Tipo de Centro........................................................ Público Privado ..............................................................................*
*Don/doña: ............................................................, como secretario/a del Centro arriba mencionado,*

*CERTIFICA*

*1) Que D./Dña.: ..........................................................................................................................................................,*
*con D.N.I. n.º .................................., es profesor/a en activo en dicho Centro, siendo su situación administrativa o laboral la siguiente:*

☐ *1 - Funcionario/a de carrera o en prácticas* .....................................................................
☐ *2 - Contratado/a laboral indefinido/a de red pública* .....................................................................
☐ *3 - Interino/a con estabilidad* .....................................................................
☐ *4 - Interino/a sin estabilidad*
☐ *5 - Otras (especificar)*

*2) Que durante el curso 2001/ 02 imparte las siguientes materias por horas y niveles*

| *ÁREAS* | *NIVELES* | *N.º DE HORAS SEMANALES* |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

*En ........................... a ..... de ............ de 2002*

*V.º B.º*
*El/la director/a del Centro*

*Firma del/de la secretario/a y sello del Centro*